



- bakarretako(a) / (bat)
- bakarretarik (bat)
- bakarretatik (bat)
- bakarretariko(a) / (bat)

#bakarrenetako(a) / (bat)

#bakarrenetarik (bat)

#bakarrenetariko(a) / (bat)

OHARRA

Traolak (#) esan nahi du esapidea ez dela pragmatikoki egokia, gramatikala izan arren. Testuingurua emanez gero, orduan erabil liteke.

○ **bakarretako(a) / (bat)**

- Pertsona **bakarretakoa** zen herrian, Dickiek esaten zuenez, hegoaldeko dialektoa hitz egiten ez zuena.

Ripley trebea, Patricia Highsmith. Euskaratzailea: Asun Garikano (Igela, 1999).

#...bakarrenetakoa zen...

- Navajoa izan gabe navajoera ondo hitz egiten zuen pertsona **bakarretako bat** zen.

Kodeen liburua, Simon Singh. Euskaratzailea: Idoia Santamaria, Elhuyar, 2012

#...bakarrenetako bat...

○ **bakarretarik (bat)**

- Europa batuan Frantzia **bakarretarik** da herri mintzaireren aldeko eurokarta ez duena alde bat¹ eta funtsez onartzen.

Herria, 2005-03-03 [Moldaturik]

- Dakigun gauza **bakarretarik bat**, hau da: San Polikarpok bazuela heretikoentzat Jondoni Joanek bezain higuintza handia.

Sainduen bizitzea, Bazilio Joanategi, 1890

¹ ALDE BAT. adb. *Lap. eta Naf. Erabat, guztiz, betiko.*

○ **bakarretatik (bat)**

- [Txillardegi] (...) Hegoaldekoa bezainbat Iparraldekoa: hemengoak ulertzen gaituen **bakarretatik**.

Jean-Louis Davant, in Txillardegi lagun-giroan, 2000.

- ...herriaren garapena bultzatzeko daukaten baliabide **bakarretatik bat** galduko dute.

Allande Sokarros, Berria [Euskal Herria], 2003-11-20 [Moldaturik]

○ **bakarretariko(a) / (bat)**

- Eta, nola gaztetasuna baita, bertzalde, diruz ezin eros daitekeen aberastasun **bakarretarikoa**, abarizios izanen haiz.

Lur bat haratago, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2000)

#...bakarrenetarikoa

Badira, nolana ere den, tankerako esapideak singulartasuna edo zerbaiten kopuru-urritasuna adierazteko. Hona zenbait:

- **bakanetako(a) / (bat)**
- **bakanetarik (bat)**
- **gutxietako(a) / (bat)**
- **gutxietarik (bat)**
- **urrietako(a) / (bat)**
- **urrietarik (bat)**

Hona euskal corpusetako zenbait adibide:

- Naturarekin bat egiten dugun une **bakanetakoa**.
Aitzpea Leizaola, Berria [Iritzia], 2005-05-04.
- Jendea benetan haserretzea lortu duen artista **bakanetarik bat**.
Xabier Gantzarain, Berria [Iritzia], 2006-06-03.
- Mosku da Siriari geratzen zaion ageriko aliatu **gutxietakoa**.
Amagoia Mujika, Berria [Mundua], 2012-03-18.
- Bernard zen berak ezagun zituen gizon **gutietarik bat**.
Aldous Huxley, Bai mundu berria. Euskaratzailea: Xabier Amuriza (Lur, 1971)
- [Ann Pettifor] (...) arriskatu eta asmatu zuten ekonomialari **urrietakoa** izan zen.
Pello Zubiria, Argia, 2009-09-06.
- Popperren ezagutza objektiboaren teoriari buruzko literaturan dauden eztabaida kritiko **urrietarik** baliozkoenak Carr 1977, Currie 1978, Cohen 1980 eta Mackie 1985 dira.
Karl Popper, Ezagutza objektiboa, Euskaratzailea: Alberto Gabikagojeaskoa (Pentsamenduaren Klasikoak, 2002).